

Euskara bizia

El Diario Vasco, [1990-10-30].

Euskara da euskaldunen hizkuntza.

Honek esan nahi du, gure herria Euskal Herria izan dela berez; gutxi gora-behera Kristo baino sei-zazpi mila urte lehenago bere hizkuntza sortu zuela, eta hizkuntza honek eman ziola herri honi daraman izena.

Euskal herriaren hizkuntza, jatorrizkoa dela.

Espainolak, frantsesak, badute iturri ezaguna, erromatarrek ekarritako latina; gureak ez. Gure hizkuntzak milaka urte hauek halaxe jarraitu du izaten; gizaldiz-gizaldi, aiton-amonek seme-alabei, eta gero haien bilobatxoei euskaraz egiten zietelako, noski. Orduan ez zen eskolik, ezta irrati eta telebistarik ere. Joan den mendean sortu ziren eskolak, eta eskola bidez hasi ziren indarrez sortutako Estatuek hizkuntzak erakusten; ez berri bakoitzari bere hizkuntza, baizik eta herriak hobeto menderatzeko, Espainian gazteleraz, eta Frantzia frantsesez. Beraz, Euskal herriari Madriletik eta Paristik erdarak ezartzeko aginduak jaso zituzten, eta askotan maisuak berak euskaldunak baziren ere, erdarara behartu egin zituzten.

Badakigu hemen diskriminazioak noiz hasi ziren.

Don Joxe Migel Barandiaranek ongi utzi digu esana: bere haurtzaroan lehen eskola herriko maisu euskaldunen bidez gazteleraz buruz ezagutzen ez zituzten gauzak ikastera behartzen zituztela; berdin esan dit nire aitak, eta berdin jasan dut Andoainen neuk lehen erdara, andoaindarra zen Inaxio Tolosa maisuaren ahotik, noizean behin pasatzen zen inspektorearen beldur.

Gure herria eraztunaren beldur bazen, maisuak lana galtzeko edo desterruaren beldur izaten ziren. Beldurrez zanpatu gaituzte beti; eraztunaz, gerraz, gartzelaz eta exilioaz, desterruaz.

Amaitu berria dugu azkenekoa geure muinetan.

Orduan, nola gorde da, hala ere, euskara Euskal Herrian?

Etxean gorde du euskaldunak gizaldiz-gizaldi euskararen su ederra itzaltzen utzi gabe. honetarako, euskaraz hitzegiten zen etxean; hala jaso genuen geuk ere euskal hitzaren sua.

Gaur, zorionez, euskaldun batzuen arretaz sortu ditugu ikastolak; gero, geure Autonomia dela bide sortu dira komunikabide batzu, ezik, eta hau ere egingo dugu laster. Baina hau dena, erdal hitzak gure herrian hartu duen nagusitasuna borrokatzeko, geure herriko oinarria den familian landu behar dugu hasiera-hasieratik, familiatik. Ez dugu inoiz ahaztu behar, euskararen sugeloa, etxean erabiltzen duguna dela gero lagunartean eta herrian nonnahi erabiliko duguna.

Orain ez dago Frankorik ikaraz isiltzeko, geuk hartu behar dugu herri heldu garenez, sustraietatik euskararen galera.

Gaur ez gara beldur eraztunari; hemendik aurrera, geure ardura da nahiko, Euskal Herrian euskarari bizi sendoa emateko.